

{ datorrena } Iñaki Soto

# Ezkerra eta agertokiakien arabarako politika eraginkorra

A rtikulu hau idazten ari naizenean Britainia Handiko herritarrak bozkatzeko ari dira. Argitaratzen denerako, ordea, hauteskundeetako emaitzak ezagutuko ditugu. Alegia, lehen ministroa Theresa May edo Jeremy Corbyn izango den jakingo dugu. Une honetan, duela bi aste ez bezala, aukera biak dira posible, zintzoak izateko laboristek irabaztea zailagoa dirudien arren. Corbynen kampaia bikaina izan da, benetan indartsua eta ikusgarria [hemen Birminghameko mitin batean: [goo.gl/XBomWS](http://goo.gl/XBomWS)]. Ez du aurretik esana ez zuen ezer esan, baina askok esateko zuena entzun nahi izan dute orain. May, ordea, bere kalkulak nola okertzen ziren ikusi ahala izu-ikaran erori da. Neurritasuna galdu du eta berarentzat zentrala zen lidergo sendoaren ideiarekin kontraesankorra den ahulezia erakutsi du. Adibidez, gorputz-lengoaia aldatu zaio, are nabarmenago atentatuen ondoren, baina baita kontserbadoreen hauteskunde-manifestua defendatzeko orduan ere [Andrew Neilek BBCn egindako elkarrizketa hau horren adibide garbia da: [goo.gl/iqho1m](http://goo.gl/iqho1m)].

Batak edo besteak irabazi, politika zeharo desberdinak egingo dituzte. Jakina, Jonathan Powellek "The New Machiavelli" liburuan maisuki azaltzen duenez, beren politikak aurrera ateratzeko izango dituzten mugak itzelak izango dira, Mayrenak baino askoz itzelagoak Corbynenak. Azken batean, neoliberalismoan sistema gobernuaren gaintik dago. Boterean dagoenak herrialde bat eta jendarte bat aldatzeko askoz ere ahalmen gehiago ditu, noski. Aukerak hain irekiak dauden herrialde batean, ordea, galtzaileak politikak egiteko tarte txikia du, baina Politika egiteko aukera handiak ditu.

Garaiotan, iritzi publikoak dituen aldaketa etengabeekin, egiturek dituzten ezegonkortasunekin eta herritarren hauteskundeetako leialtasunaren ahultzearekin, hauteskunde emaitzak eta jendartearen izaera berdintzeak aldaketa politikorako aukerak ahultzen ditu. Donostian egunotan izan diren europar ezkerrearen Study Days bikainetan aipatu nuenez, Trumpek irabazi zuen, baina Sandersek irabazteko aukera erreala izan zuen, Corbynek duen bezala. Jendarte berbera da, baina agertoki batean eta bestean aukerak desberdinak dira; ondorioz, estrategia desberdinak behar dira, eta ez dakit ez baterako ez besterako prest ote gauden. Sis-

temak fatalismoa indartzen du eta gure aurreiritzi eta nostalgiek gainontzekoa egiten dute. Adibidez, ez dugu Venezuelan kolpe bat emateko zain egon behar [irakurri Luismi Uharteren hau: [goo.gl/vp2FG1](http://goo.gl/vp2FG1)], Brasilen jada kolpea eman dute-eta. «Chavez eta Lula ez ziren berdinak», esango du baten batek. Ezta Rousseff eta Maduro ere, diot nik. Urrutira joan gabe, espainiar Estatuan Podemosen arazo nagusia ez da galtzea izan, baizik eta agertoki horretarako planik ez izatea. Eskoziar independentistak, ordea, prest zeuden. Hona etorrira: komunikabide indartsuak aurka izan arren aldaketa politikoa eman bazen, orain komunikabide horiek ahulagoak direnean, ez bota zure galeren errua beraiei.

Etxekalte ariko naiz, akaso, baina nire ustez ezkerak abokatuak, kazetariak eta filosofoak baino beharrezkoagoak dituzte uneotan ingeniariak eta ekonomialariak. Kontakizunean paltal gabiltza, eta ez dut honetan gure ardura zuriu nahi, baina are eskasagoak dira gure errepede-mapak, gure inber-

Irabazi edo galdu, jendarte berbera da. Baina agertoki bakoitzean aukerak desberdinak dira; ondorioz, estrategia desberdinak behar dira, eta ez dakit ez baterako ez besterako prest ote gauden

tsioen errentagarritasuna eta gure agertokiakien arabarako aurreikuspenak. Efikazak bagara, gauza handiak egiteko gai gara (Arantxa Tapiak bezalako "eskuineko estajanovista" berriaren aurrean gure lanerako grina eta sakrifizioarako gaitasuna motelduta daudela iruditzen zaidan arren), baina batera efizienteak ez gara, gauzak egiteko inbertitzen ditugun indarrak neurgabeak dira-eta. Gure artean ez da ideologikoki "errentagarritasun politikoaren" kontzeptuaren kontra dagoenik falta; are, gastatutako indarren eta lortutako emaitzen arteko harremana aztertzearen beraren kontra daudenak ere badira, marjinalak direla sinistu nahi badut ere. Gure printzipioen sendotasunari buruzko kezkarik ez dut, baina errealtatearen analisi zuzenak eta estrategia eraginkorrak behar ditugu, printzipio horiek ez ditzaten gure amaierako helburuak ito. Errealismo politikoa materialismoaren anaia txikia da, eta beren arerioa idealismoa da. •